

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2019ko martxoaren 12an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-19:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: (Euskarako zinegotzi ordezkaria)

EH BILDU

EAJ

PSE-EE

IRABAZI

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA

BIZARRAIN ELKARTEA

BERRITZEGUNEA

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

KUTXABANK

Urtxintxa

AEK

BATZEN

REALA

EUSKADIKO KUTXA

Euskara Zerbitzuaren langileak:

(Zerbitzu burua)

(Atal burua)

Herri Partaidetza saila

(Teknikaria)

EZ DIRA BERTARATU:

ULIAKO AUZO ELKARTEko ordezkaria

LABeko ordezkaria

Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkaria

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

Herri Partaidetza sailak aurreko bileran emandako azalpenen akta ere bidali zitzaien. Beraz, biak ontzat eman dira.

2.- Euskara Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuak eta ekintza plana aurkeztea

Kontseiluko lehendakariak azaldu du 2018ko azken Euskararen Kontseilu Sektorialean aurkeztu zen aurrekontu proiektua izan dela Udalbatzak 2019rako onartu duena eta aurrekontu horretan

oinarrituta egin duela Euskara Zerbitzuak bere kudeaketa plana (egun batzuk lehenago kontseilukide guztiei bidali zaiena).

Ondokoak nabarmendu ditu:

Donostiako Euskararen Plan Orokorra bideratzeko, 2019an 2018an baino 32.589 € gehiago izango ditugu. Orotara, 1.668.760 €.

2018ko aurrekontuarekiko alde nagusiak hauek izan dira diru partidei dagokienez:

- 10.000 € gehiago herritarrek euskara ikasteko diru laguntzetarako
- 6.000 € gehiago Parketarrak auzo gehiagotara iristeko
- 3.000 € gehiago KEES metodologia klub gehiagotara iristeko
- 20.000 € gehiago Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako
- 15.604 € gehiago Euskaltzaindiaren mendeurrena
- Aldiz, 20.000 € gutxiago bideratu dira erakunde autonomoetako langileen euskalduntze-alfabetatzerako. Beharra gutxitzen joan delako.

Aurrekontuaren igoera edo aldaketa horiez gain, esparru bakoitzean planteatu diren egokitzapen edo berrikuntzen arabera, hauek lirateke 2019rako aurreikusi diren berritasun nagusiak:

- Gazteak: Sarean ere euskaraz (EHUrekin batera, teknologia berrien alorreko kontuak, tailerrak, sareak... lantzeko topaketa bat antolatzea aurreikusten ari gara). Ekolingua eta euskara batzordeen topaketen osagarri. (15.000 € inguru)
- Merkataritza/Ostalaritza: Erraza da egitasmoa (10.000 € inguru) eta kanpo eta barne errotulaziorako diru laguntzak (22.500 €, deialdia egina dago)
- Ongi Etorri Eskolara eta Guraso Laguna programa osatzeko, aisialdia indartuz besteak beste, lankidetzak. Bai udaleko Kultur Aniztasuna departamentuarekin eta baita hori bideratzen duen Elkarrekin elkartearekin lankidetzak (5.000 € inguru)
- Euskararen Plan Orokorren (2020-2025) ebaluazioa, jarraipena eta diseinu berria (18.000 € inguru)
- Euskaraldiarekin jarraituko dugu prestaketa lanetan eta pilotaje lanak egiten Bagerarekin batera. 2019ko aurrekontuetan 60.000 € jaso genituen arren, 35.000 € inguru bideratzea aurreikusten da. Orain ari gara gaia zehazten eta epe laburrean lotuko ditugu diru kontuak ere.

Aurkezpen honen ondoren, galdera txanda zabaldu da:

- Batzeneko ordezkariak galdetu du ea Euskara Zerbitzuak Korrika laguntzea eta Kilometroa erostea aurreikusi duen. Donostia osoari begira antolatzen direnez gain, auzoetan ekintza ugari antolatzen direla Korrika pasatzen den egunen inguruan eta ea Udalak zein aurreikuspen duen.

Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun dio Euskara Zerbitzuak babesletza kontratua sinatu duela Korrikarekin, horren truke 7.260 € (BEZ barne) emango dizkiola; kilometroa erosiko duela Udalak 1028,5 € (BEZ barne)ren truke eta auzoek Korrikarekin antolatutako edozein ekintza antolatzeko diru laguntza eskatzeko aukera dutela (diru laguntza hauek defizitaren ehuneko ehuna estaltzen dute).

3.-Merkataritza eta Ostalaritza lantaldean landu diren gaiak aurkeztea: *Ostalaritzan eta Merkataritzan ere euskaraz egitasmoaren baitan kokatzen den Erraza da ekimena eta hizkuntza paisaiaren dirulaguntzak*

Erraza da Parte Zaharrean modu pilotuan abian jarriko den ekimena da. Bertako ostalaritza establezimenduetan lan egiten duten eta euskara ez dakiten langileei erronka bati aurre egitea planteatuko zaie: egunean euskarazko 2 hitz ikasita, 3 hilabeteren buruan 200 euskarazko hitz ikastea.

Ekimenaren inguruan lehendakariak eman dituen azalpen eta xehetasun guztiak bileraren aurretik kide guztiei bidalitako dokumentazioan jasota daude.

Laboral Kutxako ordezkariak adierazi du oso ekimen interesgarria iruditzen zaiola.

4.- KEES (kirol entrenamenduetan Euskararen Erabilera Sustatzea) metodologiaren bilakaeraren berri ematea

Une honetan KEES metodologian parte hartzen ari diren klubak eta talde kopuruaren berri eman du lehendakariak eta erabilera azterketen azken neurketek eman dituzten hainbat datu ere azaldu ditu. Hori guztia xehetasunez jasotzen duen dokumentazioa banatu zaie kide guztiei eta bideo bat ere jarri zaie.

Gai honen inguruan, Berritzeguneko ordezkariak esan du eskolaz kanpoko eta aisialdiarekin lotutako horrelako ekintzak ezinbestekoak direla erabilera normalizatzen joateko. Eskolarekin batera funtsezkoak direla.

Real Sociedad Fundazioko ordezkariak esan du pena dela futbol talde gehiago ez aritzea baina aldi berean zerbait esan nahi duela horrek, alegia, ez dela oso kirol euskaldundua. Euskara Zerbitzuko teknikariak erantzun dio egia dela baldintza onenak dituzten klubetara jo dela lehenbizi baina Euskara Zerbitzua saiatu dela baita ere kirol mota guztiak biltzen. Eta hedapena pixkanaka egiten ari direla, besteak beste, aurrekontuak eta baliabideek ahalbidetzen duten neurrian.

5.- Euskararen Plan Orokorra 2015-2019ren balantzea eta 2020-2014 plan berriaren diseinua egiteko aurreikusi diren urratsak aurkeztea.

2019arekin amaitzen da 5 urterako onartu zen Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019. Beraz, aurtengoa balantze urtea eta plan berria diseinatzeko urtea da. Hori dela eta, zein urrats emango diren azaldu du lehendakariak.

2019ko URTARRILA-MAIATZA

→ AURRE-BALORAZIOA

Euskara Zerbitzuak aurre-balorazio bat egingo du 2015-2018 bitarteko datuekin (adierazle orokor batzuk, urtez-urteko kudeaketa planen betetze mailaren batura eta balorazio kualitatibo labur bat esparruka)

→ Aurre-balorazio hori oinarri harturik, GALDETEGI bat osatuko du

→ AURRE-BALORAZIOA + GALDETEGIA talde hauetako kideei bidaliko zaie bete dezaten:

- Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideei
- Auzoetako Batzordeetako kideei

→ Galdetegi horiek beteta Euskara Zerbitzuak jasoko ditu balorazioa osatu eta aurrera begirakoak ondorengo lanketa eta diseinurako abiapuntu gisa jasotzeko

2019ko EKAINA-UZTAILA

→ AHOLKULARITZA ENPRESA + ADITUren bat kontratatu

→ Aurre-ebaluaziorako jasotako datuekin, galdetegietan jasotako iritziekin eta enpresa-adituen aholkularitzarekin datozen urtetako plana diseinatzeko hasi. Txosten zirriborroa egin.

2019ko IRAILA-2019ko OTSAILA

→ Aurre-ebaluazioaren eta diseinu zirriborroa aholkularitza enpresarekin lantzen joan

→ ADITUekin kontrastea egin

→ EZTABAIDA talde espezifikoak sortu, agian lehentasunezko sektoreen ordezkariak

→ AURRE-TXOSTENA idatzi

→ Euskararen Kontseilu sektorialeko kideei eta auzoetako batzordeei aurkeztu. Ekarpenak jaso.

→ 2019ko datuekin txostena osatu eta behin betiko erredakzioa egin

→ Plana TGBk onartu

→ Plana aurkeztu

EHBilduko ordezkariak eskatu du urrats hauekin guztiekin kronograma bat osatzea eta aktarekin batera kide guztiei bidaltzea. Horrela egingo dela erantzun zaio.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 19:30ean.